

# ...eta kitto!

687 zkia. 2009-VII-17

ASTEKARIA

## Mugikorren antenekin kezkatuta

### EUKi

ARTEKARITZA

Torbio Etxebarria, 1 - behea  
943 20 42 99

**AUTOAREN ASEGURUA**  
*preziorik onenean*





**ARGITARATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkartea  
**HELBIDEA:**

Urkizu, 11 - solairuartera  
20600 Eibar

**TELEFONOAK:**

943 20 67 76 / 943 20 09 18

**FAXA:**

943 20 28 72

**Astekariaren E-MAILak:**

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

**Elkartearen E-MAILak:**

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**

Itziar Albizu

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

Ekhi Belar

**ADMINISTRAZIOA:**

Marisol Uriarte

**KOORDINATZAILEA:**

Koldo Mitxelena

**ERREDAKZIO-BURUA:**

Silbia Hernandez

**DISEINUA ETA MAKTATZIOA:**

Jose Luis Gorostegi

**ARGAZKI ARLOA:**

Leire Iturbe,

S. Hernandez eta E. Belar.

**HIZKUNTZA ARDURA:**

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

**PUBLIZITATEA:**

Itziar Albizu

Belen Ulazia

**Tfnoa:** 943 20 67 76

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Silbia Hernandez

**BANAKETA-ARDURADUNA:**

Ihintza Fernandez

**TIRADA:**

7.950 ale

**INPRIMATEGIA:**

GERTU koop. (Oñati)

**COPYRIGHT-A:**

...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:**

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

(\*...eta kitto!\* ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen  
eta iritzien erantzunkizunik)

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten enshera

**ESNA IBILLI.-** Erne, adi, argi, kontuz ibili. "Esna ibilli, mutillak, ezarri detsuen lagun horregaz, bedori argi ibilliko da ta".

**ESPORTE/ESPORTA.-** Belaunerainoko kaltzetinak. "Fraka motzetan esportiak erabiltzen genduzen".

**ESTU HARTU.-** Tratu txarra hartu edo pasatu eragin. "Estu hartu niñuen uezabak berandu heldu nintzalako". Txarto pasatu eragin. "Egarrixak estu hartzen najok"

## ESKUTITZAK

### ARRATEKO ERREPIDEKO ERREBUELTAK

Arrateko bidean sarri ibiltzen garenok azken aldian egindako lanak txalotzen ditugu. Baina badago nabarmena den akatsa. Lau edo bost bira edo errebuelta badagoz oso itxiak eta arrisksuak direnak; bereziki, autobusarekin topo egiten dugunean, esate baterako Pageiko biraren kasuan. Bide hori egin zene-

tik, ez da sekula kaminoaren zabalketa lanik egin. Gizarateak asko eskertuko luke udal teknikariok kontu horretako ardura hartuko bazenukete. Gainera, gaur egunean baserritar asko ibiltzen da inguru horretatik, baita Markina aldera joaten den beste asko ere.

Tro

### ONDO PASA OPORRETAN

Esku artean duzuen ale hau uztaileko AZKENA izango da. Sasoi honetan badira kanpora joaten diren irakurleak eta, hori aprobetxatuz, urteroko moduan, abuztuko oporrak tartean daudela, ikasturte berriari ekiteko gauzak prestatzeko egun batzuk hartuko ditugu. Arrateetako ale berezia prestatzen dihardugun bitartean, ondo pasa oporrak!!!

### Irailaren 4an izango gara berriro zuekin

Bitartean, eta abuztura arte, informazio eguneratua izango duzue [www.etakitto.com](http://www.etakitto.com) webgunean


## asteko HEMEROTEKA esaldiak

"Gure artean artxiboak elkartrukatzek ez dio inolako kalterik egiten sortzaileari. Krisiak edonondik erasotzen digun honetan, Internetekin kultur industria gero eta hobeto dago. Musikan, esaterako, lehen etxe diskografikoak ziren irabazten zuten baka-rrak; orain, jendeak, diskoak erosi beharrean, kontzertuetara joaten da: musikariarendako abantaila"  
(Christian Engstrom, Alderdi Piratako partaidea)

"Debako adin txikikoendako harrera-etxean dau-denak zailak dira oso; eskura jarri zaizkien baliabi-de guztiak ez dituzte aprobetxatu nahi eta horregatik daude Deban. Beste harrera-etxe batzuetan dau-den adingabeen gainerako %90ak badihardu aprobetxatzen emandako baliabideak; eskolatuta daude eta bizi proiektua egiten ari dira gure artean"  
(Maite Etxaniz, Gipuzkoako Gizarte Politikako diputatua)



EIBARKO  
UDALA



GIPUZKOAKO  
FORU  
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

# autuan

## PILULA ARRISKUTSUAK

Aurreko asteko eguen goizean, Zamudioko Tegor laborategietan Ertzaintzak eta Polizia Nazionalak burututako operazioaren harira, Karmen kaleko estetika klinika batean miaketak egin zituzten. Izan ere, argaltzeko produktu kaltegarriak banatzea egotzita, Portugalete, Barakaldo eta Eibarren kontsulta zuten sendagile bi atxilotu zituzten. Itxura denez, salaketa baten ondorioz martxan ipinitako operazioan, osasunerako kaltegarriak diren hainbat pilula antzeman zituzten.


## UDALAREN LAN-ESKANTZA

Historian edo letretan lizentziadunentzat zein gizarte-langile diplomadunentzat lanpostua eskaintzen dihardu Eibarko Udalak, Enplegua Sustatzeko Programaren barruan. Eskaerak egiteko Pegorara joan behar da, uztailaren 23ra arte (egun hori barne), 09.00etatik 13.30etara.

## KIOSKOA ENKANTEAN

Untzaga plazako kioskoa enkantean aterako dute: Emakida-denbora 10 urtekoa da eta lizitazio-oinarria, berriz, 9.000 eurokoa. Eskaerak aurkezteko epea uztailaren 30eko 13.00etan amaituko da eta proposamenak, baldintza orrietan datorren ereduaren arabera egindakoak, kartazal itxian aurkeztu behar dira Udaleko erosketa-atalean. Betebeharrak Pegoran eskuratu daitezke.

## Eibar energia berriztagarrien alde



**EGUZKI PLAKEN INSTALAZIO OBRAK AMAITU BERRI DIRA** Eibarko hiru ikastetxetan: Arrateko Andra Mari, Amaña eta Sansaburu ikastetxeetan, hain zuzen ere. Instalazio horietako bakoitzak 5.178,22 Kw. energia sortuko du urtero eta 2.356,61 euro inguruko itzultzeak ekarriko ditu. Instalazio horien bitartez Eibarko Udaleko eraikinetan CO2aren emisioak gutxituko dira. Bataz beste

14.949 kg. inguru gutxiago batak dira ingurumenera, ideia bat egiteko hamabost lagunen urteko kontsumoak dakarren emisioaren parekoa. Udalan energia berriztagarrien aldeko prozesuan lehen atalari erantzuten dio neurriak. EEEK azterketa egin ostean beste kokaleku posible batzuk proposatu ditu, hala ere, azterketa sakonago baten menpe geratzen da proposamena.

## Parkeak hornitzeko proposamenak


**EZKER BATUA-ARALAR KOALIZIOAK UDALEKO ZERBITZU BATZORDEARI PARKEETARAKO** hainbat proposamen helarazi dizkio, he-



rriari ziburu-zaura eta bestelako jolasguneak berritzea erabakitzeko orduan kontuan izan ditzaitez. Gure inguruko hainbat herritako parkeetan hartutako irudiek osatutako txostena ere gehitu diote eskaerari. Koalizioko ordezkarien berbetan, *“adin tarte zabalera egokitutako jolasguneak sortzea eskatzen dugu, parkeak ahalik eta erabilera zabalena izan dezaten. Izan ere, gaur egun dauden ekipamenduekin 4-5 urte arterako haurrek baino ez dituzte erabiltzen. Argazkietan ikus daitezkeen moduan, Eibartik gertu dauden beste herri batzuetan horren adibide ugari erraz ikus daitezke”*. Eskaera ez da berria, iazko azaroan ere gai beraren inguruko eskaera aurkeztu zuten-eta.

## Spraikada zapatuan Mutrikun

**ZAPATUAN MUTRIKUKO KALEAK KOLEZ BETEKO DITUZTE TOPAGUNEAREN ESKUTIK** jokatu den IV. Graffiti Lehiaketako buruz-burukora ailegatu direnak. Egun osorako egitarau zabal prestatu dute antolatzaileek, goizean goiz hasita: 09.00etan hasi eta 18.00ak arte graffiti erakustaldia izango da Goizeko Izarra Ikastolan IC Crew, Say eta Brs-ren eskutik. 10.00ak eta 18.00ak bitartean, berriz, finalisten arteko lehia jokatu da Mutrikuko kaleetan. Txurruka plazan, berriz, 10.00etatik 12.00etara haur eta gazteentzat tailerrak egongo dira martxan, Txantxangorrixak Aisialdi Taldearen eskutik. Jarraian, ‘Graffiti ezohiko euskarrietan’ tailer



irekia gidatuko du Haritz Iruretak. Bazkalostean jarduera gehiago izango dira: 17.00etatik 20.00etara DJ/Scratch, break-dantza eta bertsoak izango dira nagusi, Bertsound System-en. Aritz Sound System-ek gidatuko du saioa eta, besteak beste Xabier Silveira bertsolariak eta 121 Crew taldeak jardungo dute. Sari banaketa 19.30etan hasiko da.



- Pin-ak  
- Metxeroak  
- Kamisetak  
- Boligrafoak...

**PUBLIZITATE ARLOKO eta ENPRESETAKO OPARIAK**

**Armagin 3 - behea**

☎ eta faxa: 943 70 14 97      Publi.resa@euskalnet.net

URKIZU, 7    ☎ 943 82 04 94 / 943 12 11 20    Faxe: 943 12 11 40  
uthemek@uthemek.com



**UTHEMEK**  
UTILES Y HERRAMIENTAS PARA EL MECANIZADO, S.L.

**SPK- Zeramika, silizioa**  
**ISCAR - Trontzaketa eta fresadorarako erreminta bereziak**  
**ROY - Diamante eta boraxezko harriak**



Hainbat arrazoirengatik lanak ezin direla hasi diote EB eta Aralarrek. / EKHI BELAR

## Errebaleko lurren itzultzea eskatu du EB-Aralarrek

**EZKER BATUA-ARALAR KOALIZIOAK ERREBALEKO LURRAK HERRI-ONDASUNERA** itzultzeko eskaera egin zuen aurreko astean prentsa aurrean egindako agerraldian. Koalizioko ordezkarien berbetan, "lanak ezin dira hasi, hainbat arrazoi medio". Gauzak horrela, Eibar Boulevard enpresa pribatuaren esku dagoen lur horien jabetza herriaren eskue-

tara itzultzea eskatzen du EB-Aralarrek.

Mari Asun Gartzia eta Eli Gomez zinegotziek, bai Eibar Boulevardek, bai Udalak prozesuan zehar egiten dihardutena salatu zuten: "Irregularitasun asko egon dira. Enpresa pribatuari egotzi nahi dizkiote kulpak orain, baina prozesua anomaliar bezalaz dago Udalaren aldetik ere".

## Udako beherapenen azoka

**HILAREN 23-AN ETA 24-AN EGINGO DA UDAKO BEHERAPENEN AZOKA**, Eibar Merkataritza Irekia Elkartearen eskutik. Hirugarren urtez jarraian egingo den azokak herriko 35 denda elkartuko ditu Toribio Etxebarria kalean, azokarako propio ipiniko dituzten karpak batzuen azpian. Egun bietan 10.00etatik 20.00etara egongo da zabalik azoka eta bertan eskainiko diren artikuluetan beherapen eta eskaintza bereziak izango direla aurreratu dute antolatzaileek.



Hirugarren urtez jarraian egingo da udako beherapenen azoka. / EKHI BELAR

# anzorik anzo



## Miradoreak Arrate eta Santa Kurutzen

Uda ostean ekingo diote Arraten eta Santa Kurutzen miradoreak egiteari: udako oporren ondoren irtengo dira lehiaketara beharrak eta aurten bertan, urtea amaitu aurretik miradore biak prest egongo direla aurreikusi dute Udal arduradunek. Ingurumen batzordeak bultzatutako proiektuek miradoreen inguruko paisajea eta bestelakoak zainduko dituztela aurreratu dute. Arrateko miradorea gurutzearen inguruan prestatuko dute eta bien artean handiena izango da eta behin inguru guztia txukunduta, plataforma modukoa sortuko dute. Berezitasun gisara, kolore ezberdina izango duten baldosekin laberinto modukoa sortuko dutela da. Gainera, han inguruan dagoen telekomunikazio-etxetxoak tokiz aldatzeko aukerak aztertzen dihardute, bistak hobetzeko asmoarekin. Santa Kurutzeko miradorea ermita parean egingo dute, baina parean dauden pinuek traban daudenez, pinuak kentzeko pinadi zati bat alokatu edo erosi ahal izateko dauden aukerak aztertuko dituzte.

## eibar kaleka

### Wenzeslao Orbea

Sasoi batean Amaña zaharra izandakoaren gaineko kaleak darama Wenzeslao Orbearen izena. Eibartar peto-petoa, Urkizuko Orbeatarren familiakoa zen abokatu hau eta luzaroan Foru Aldundiko letratu gisa egin zuen beharra. Gipuzkoako Aurrezki Kutxako sortzaileetako bat ere izan zen eta politikarako tartea ere hartu zuen, Madrileko Gorteetara ailegateraino. Herriko industriari bultzada eman zion.

**Pegora kopurua: 21. Erroldatutakoak: 497.**



asteko

48.000

datua

eurotik gora erabili zituen Udalak iaz, herriko hormetan margotutakoak garbitzeko eta kartelak kentzeko zerbitzuetan.

Hilabete honetan lehenengoz jaso dute Ertzaintzaren bidez horma bat garbitzeko agindua. Eusko Jauriaritzako Herrizaingo Sailak horrelakoetarako 500.000 euroko partida sortu du.

**UDALEKO BOZERAMALEEN BATZARRAK GIPIZKOAKO FORU ALDUNDIARI** Matsarian adingabeak hartzeko prestatzen diharduen zentroaren irekiera atzeratzea eskatu dio. Udal ordezkarien berbetan, *“gure herrian azken hilabeteotan bandalismo-ekintzak, lapurretak eta ebasketak modu beldurgarrian ugaltu direnez, eta kasu asko eta askotan ekintzak Debako gazteen harrera-etxetik etorrirako gazteei egotzi zaizkie”.*

#### Neurriak hartu bitartean


Horren aurrean, gazte horien tutoretzaren ardura duen Diputazioari *“gaur egun ia egunero eta etenbarik gertatzen diren ihesaldi horiek ez izateko neurriak”* hartzeko eskatu diote. Horrekin batera, Udaltzaingoa-ren eta Ertzaintzaren arteko koordinazioa eskatzen dute,



Gizarte-alarma desagertu arte Matsariako etxea ez zabalteko eskatu du Udalak. / SILBIA HERNANDEZ

*“delituak edo ekintza bandalikoak egin aurretik segurtasunaren aldetik hartu beharreko prebentzio neurri guztiak har daitezzen”.* Eta gai horren inguruko ardura duten organo judizialei, berri, *“legez kontra egindako horiei berehalako erantzun judiziala emateko”* es-

kaera egin diete. Eibarko Udalaren iritziz, *“gure inguruan ezin da zabaldu gazte horiek hartzeko etxe berririk, gure herrian eta inguruan egiten ari direnak ekarri dituen ondorio ezin eska-sagoak konpondu eta bizitzen dihardugun gizarte-alarma egoera desagertu arte”.*



## Cristóbal Eako presidente izendatu dute

**EIBARKO EUSKO ALKARTASUNAK JUAN LUIS CRISTOBAL** izendatu du taldeko presidente, aurreko astean talde barruko banaketa eman eta hainbat kide sortu berri den Alkarbide taldera joango zirela jakin ondoren. Eibarko batzarrak

Cristóbal taldeko buru izendatzea erabaki zuen, Pello Urizar Eako idazkari nagusiaren parte-hartzea izan zuen bileran. Herri mailako idazkari kargua Gorka Novoak beteko du eta diruzaina, berri, Carmen Apellaniz izango da.

Asteartero Eibarko alkatiak **HAMAIRA BERBA** Irratsaloan orantzungo dizu, eguadiko 12.30etan. Zure keza, proposamena, zalantza bidali helbide honetara: [eibar@herri-irratia.com](mailto:eibar@herri-irratia.com) SMS bidez: Eibar (nahi duzun mezua) 5868 zenbakira, edo zuzenean telefonoz 943 82 08 44 zenbakira.

**90.7 Fm**


*Hitza emon eta bete egin da instalaziño honekin. Lanak martxa ona eruan dabe eta inauguraziñua Sanjuanekin bat etorri zan. Jendia be hasi da eskintzen dittuan zerbitzuak aprobetxatzen eta sasoi berezi honek lehelengo eritzixak jasotzeko balixo izan dau: berua barruraiño eta, freskatzeko, igerilekua da erabilliena.*

## Zer begittantzen jatzu Orbeako kiroldegixa?



**ALEX BIZKARRA**  
43 urte  
teknikua

Momentuz igerilekura jua naiz bakarrik, baiña gauza ezbaridiñak probatzen juateko asmua dakat. Emaztia bai jua dala fitness aretora eta umiak be kiroldegira doiaz. Famelixa dana! Igerilekua ondo dago, eta lpuuako kiroldegixan baiño jende gitxiago dabil hamen.



**RICARDO JAINAGA**  
57 urte  
komertziala

Ondo daguala begittantzen jata, baiña nahiko nahasixa dala be uste dot, jeroglifiko baten modokua. Ez dago ondo seiñalizatuta eta galdu egin nintzan lehelengo aldixan. Nik igerilekua erabilli dot eta oso ondo dago. Fitness aretora ez naiz jua, 'overbookinga' dagualako.

**IRUNE ARIZMENDIARRIETA**  
32 urte  
kalidade arduraduna

Oso ondo dago. Bueno, ni igerilekuan ibilli naiz batez be, baiña oso ondo daguala begittantzen jata. Gaiñera, pozik nago herri behekaldian kiroldegixa egin dabelako, hurbillago dakatelako holan. Aquafitnessian apuntatzeko probak egitten dihardue eta hor-txe nabil.



**CARMEN MARTÍNEZ**  
54 urte  
administratzaillia

Fitness aretua, igerilekua eta ikastaruak (pilates...) eskaintzen dittue, bestiak beste, baiña fitness aretuan egon naiz ni gehixenbat. Ondo dago, baiña bero larregi egitten dau, nahiz eta uda izatiagaittik dan hori. Esango neuke Orbeako kiroldegixa ez daguala txarto.



**EGOITZA NAGUSIA**  
*Bidebarrieta 20 - behea, eskuma*

**FUNERARIA MUGICA**

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

- ↳ **Tanatorioa eta Errausketa labea** Elgoibarren (Sigma poligonoan).
- ↳ Partikular, mutua eta aseguru etxeei zerbitzuak
- ↳ Koroak - Eskelak - Urteurreneko eskelak
- ↳ Euskal Herri osoko ospitaletan hartzen zaitugu
- ↳ Nazio eta Nazioarteko trasladoak

**Mugica Ehorzketa**  
Funeuskadi taldea

**TELEFONOA (24 ORDU)**  
**943 201 951**

**Helbidea**  
**URKIZU PASEALEKUA, 13**  
Orbeako dorreetako  
1. solairua

**EIBARR**

**CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA**

☎ **943 12 02 00** Fax: **943 12 02 04**

1 Kardiologia	8 Pediatria
2 Zirugia	9 Psikiatria
3 Dermatologia	10 Radiologia
4 Dietetika eta Nutrizioa	11 Traumatologia
5 Análisi Klinikoak	12 Barne Medikuntza
6 Ortodontzia	13 Koloproktologia
7 Otorrinolaringologia	14 Erizaintza

**BERRIA: Foto-depilazio Unitatea**

UEUk Markeskuan udan ikastaro ezberdinak eskaintzen dituela jakina da, baina ez da antolatzen den gauza bakarra. Ezagutza zabaltzeko, izan ere, ikastaroez gain, beste metodo batzuk erabiltzen baitira, solasaldiak kasu. Aurtengo edizioan 'Kazetaritzaren etorkizuna' solasaldia egin da.

**T**xema Ramirez de la Piscina EHUko irakaslea, Julian Beloki EITBko irratien zuzendari ohia eta Iñaki Uri Hamaika Telebistako zuzendariak 'Kazetaritzaren etorkizuna' izeneko solasaldia eskaini zuten Markeskuan UEUren Udako Ikastaroen barruan. Gauza bat argi daukate hirurek: "Kazetaritzaren etorkizuna multimedien dago". Guztiz ados daude horretan, baina multimedia hori nola bideratu beste gauza bat da, eta bakotzak bere ikuspuntua azaldu zuten.

"Pentsak astindu ederra jasoko du". Txema Ramirez de la Piscina EHUko irakasleak etorkizun iluna ikusten dio prentsari, baina horrelakoa da errealitatea bere aburuz. Fenomeno globala dela deritzo, gainera. "Pentsaren hedapen indizea mundu osoan jauzi da: 57 inguru Europar Batasunean, %10aren bueltan Espainiako estatuan, %25 gutxi gora behera Euskal Autonomi Elkartearen eta %5 inguru Nafarroan. Ez dirudi joera hori 2010eko hamarkadan aldatuko denik".

Errealitate eta etorkizun katastrofikoak antzeman arren, Ramirez de la Piscinaren berbetan zerbaitek salbatu ditu egunkariak: "kioskoetan behera egin badute ere, publikitatean gora egin dute". Eta ez hori bakarrik, azken urteetan egunkariak garatu dituzten promozio-estrategiak ere izan dira salbazioa: "Kioskoan era guztietako sorpresa eta eskaintzak topatzen ditugu goizero: kazeta honekin bideo-grabagailu bat erosteko aukera, beste horrekin toalla bat opari, eta beste harekin mendiko bizikletarekin txangoak egiteko liburuxka doan".



Ramirez de la Piscina, Beloki eta Uriak osatu zuten kazetaritzaren inguruan jardun zuen hirukotea.

## Kazetaritzaren etorkizuna aztergai

### Etorkizuna multimedien

Irakaslea den legez, unibertsitatea ezin hobeto ezagutzen du Ramirez de la Piscinak. Bere arabera, Komunikazio eta Gizarte Zientzietako Fakultatean egoera ez da lanbidean baino askoz hobea. Ikasleen artean bokazio gutxi ikusten du, izan ere, "kazetaritzaren lanbidearen egoerak berak etsipena sorrarazi du horien artean eta matrikulazioan beherakada izan da".

Pentsaren amaiera dataren ganean iritziak anitzak dira. Jose Luis Martinez Albertos irakasle madrildarraren ustez, adibidez, prentsaren iraungitze data 2020. urtea da. Beste batzuek ez dute uste, bestetik, prentsa inoiz desagertuko denik. Hala eta guztiz ere, sektoreak biziraupena bermatu nahi baldin badu, aldaketak ezinbestekoak direla azaldu du EHUko irakasleak.

Eta nola egin aldaketa horiek? Multimediaren bidetik, hau da, kazetaritzaren etorkizuna bide horretatik etorriko dela deritzo Ramirez de la Piscinak. Horren haritik, gainera, 'Multimedia Komunikazioa' izeneko masterra prestatzen ari direla azaldu du, UEUren laguntzarekin. Multimediaren inguruan, hala ere, ohartarazpen bat egin zuten irakasleak:

"Azkartasuna lehenesten da, eta askotan, azkartasunaren izenean kalitateari kalte egiten zaio". Hortaz, kalitatezko multimedia egitearen alde azaldu da.

### Finantziarioa arazo

Ramirez de la Piscinaren iritziarekin bat agertu zen Julian Beloki EITBko irratien zuzendari ohia, eta galdera hipotetiko bat planteatu zuten: "Orain irriti bat sortu beharko banu, nire boltsikotik ordainduta, galdera bi planteatu beharko nizkioke nire buruari: irriti berria unibertso digitaletik bideratuko dut ala kazetari aditunik? Argi dagoena da antenaz gain, irritiak sarearen aldeko apustua egin behar duela". Orain dauden irriti motak (irriti formulak...) aldatzen eta beste forma bat hartzen joango direla aurreratu zuten.

Egungo egoera ez dela ona argi dauka Iñaki Uri Hamaika Telebistako zuzendari nagusiak eta, bide horretan, multimedia dela etorkizuna. Dena den, multimedia hori nola sostengatuko den kezka dauka Uriak: "Finantziarioa da arazo nagusia. Telebista publiko ziren asko pribatu izatera pasa dira, eta orokorrak izatek tematiko izatera ere".



**MUGICA**  
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,  
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,  
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN  
ERREFORMAK ETA ABAR...  
**HANSROHE** KANILEN BANATZAILEA  
ZORU ERRADIATZAILEA  
EGUZKI-ENERGIA



**San Juan, 15**  
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

# Radio Eibar

CADENA

# SER

**104,0 FM**



Eibarko Udalak orain egun batzuk onartu zuen Ipuruan, uraren depositoaren aldamenean, telefonia mugikorrendako antena bateratua ipintzea. Handik 100 metro eskasera dago Ipuru baserria, Aitor Artetxe eta familiaren etxea, eta metro gutxiko erradioan, berriz, Santaiñes, Ipuruako dorreak, Juan Antonio Mogel auzoa eta beste hainbat etxe. Berriak kezka piztu du han inguruan bizi direnen artean.

**AITOR ARTETXE eta SANTI LOPEZ,**  
**Ipuruan antena ipintzearen aurkakoak:**

## ***“Beldurra izateko nahikoa ebidentzia daudela uste dugu”***

**- Nola jaso duzue azkenean telefonia mugikorrarentzat antena Ipuruan ipintzeko erabakia?**

Prentsa bitartez jakin genuen Udalbatzak hori erabaki zuela, uztailaren 1eko egunkarian horren berri eman zutenean. Sorpresa hartu genuen, asmoaren berri aspalditik izanda ere, eta gaiarekin kezkatuta sarritan Udalera deitzen jardun ostean, erabakia hartzekotan zeudenik ere ez digulako inork esan.

**- Egunotan sinadurak jasotzen diharduzue, ezta?**

Bai, Ipuruan eta inguruan bizi garen gehienak antena hemen ipintzearen kontra gaude, aurretik ere azaldu izan dugun moduan. Behin eta berriz errepikatzen digute antenak legeak agintzen dituen tartearak eta segurtasun-neurriak betetzen dituela, baina horrek ez gaitu lasai laga-

tzen, ezta Eusko Jaurlaritzako Osasun sailak gaiaren inguruan esan dezakeenak ere, legeak dioenetik milimetro bat bera ere ez direlako aldentzen. Gure ustez, indarrean dagoen telekomunikazioen lege hori, 2003. urtekoa izanik, erabat zaharkitua geratu da.

**- Zein da zuen asmoa?**

Behin erabakiaren berri izan genuenean, Udalera jo genuen, gaiaren inguruko dokumentazio guztia jasotzera, eta zinegotzi batzuekin izateko aukera ere izan genuen, baina oraindik alderdi politiko guztiekin eta alkaterekin biltzekotan gaude. Ez digute aukera handirik laga, hila-ren 23ra arteko epea eman digutelako birjarpenezko errekurtsioa aurkezteko. Baina hortik aurrera beste bide batzuk ere badaude alegazioak-eta aurkezteko eta aukerak aztertu behar-



Ipuru baserria geratzen da gertuen, baina inguruan etxe asko daude.



ko ditugu. Oraingoz, egun gutxi batzutan 1.000tik gora sinadura batzea lortu dugu.

**- Inguruan bizi zaretenak kontra azalduta, nolatan hartu dute, bada, horrelako erabakia?**

Kontua da aspaldi G-93 enpresari antenentzat toki egokiak zirenak aztertzeke ikerketa agindu ziotela eta enpresa horrek 15 tokitik gora aztertu zituela, baina gehienak desegokitzat eman zituzten eta, azkenean, toki aproposenak hiru zirela pentsatu zuten: Ipuruako hau eta Matsari-Gain eta Sautsi inguruak. Telefonikoei 2001ean antena ipintzeko baimena eman ziotenean jasotakoa atzera bota eta Gobernu Batzordeak puntu bakkarraren aldeko erabakia hartu du. Orduko plangintzarekin erradiazioa sakabanatuta geratzen zen, baina erabaki berriarekin dena batean kontzentratuko da. Azken batean, telefonia operatzaileen neurriaren egindako ordenantzak dira hauek.

**- Batzuk ez dute ulertzen zeren beldur zareten; baina, zein da zuen kezka?**

Estatu mailan, toki askotan distantziak urruntzeko erabakia hartzen dihardute eta guk, horrez gain, erradiazioaren kontrola ere eskatu nahi dugu. Orain dela 10 urte antenen erradiazioak-eta nolako eragina zuten laborategietan probatzen zuten, arratoiekin, eta orduan ere ikusten zen urduritasuna, estresa, kantzerrak eta mutazioak ere agertzen zirela. Guretzat horiek nahikoa dira ezetz esateko, badaezpada. Baina, urte horiek igarota eta estatuan bertan ikusi direnak ikusita (Valladoliden, adibidez), gure beldurra gauzatuta daudela uste dugu, inguru askotan minbizi kasuak hirukoiztu egin baitira. Ebidentziak alde guztietatik agertzen zaizkigu. Hemen jende ugari bizi da, tartean ume asko. Gaur egun nahikoa estaldura dago deiak egin eta mezuak bidaltzeko; beraz, jendeak pentsa dezala sakeleko telefonoen eskaintza zabaltzeak kostu bat dakarrela, kasu honetan herritarren osasunaren kalterako.

Uztailla aillegatziarekin batera, opor-usaiña nabarixa da herrixan, baiña horrekin batera eibartarrondako ezagunak diran usain eta zarata batzuk be ugaritzen dihardue egunetik egunera gurian: obrak eragindakuak. Aurten, krisi ekonomikua tartian dala, beste urte batzuetan baiño obra gitxiago egingo dirala aurreratu dabe, baiña halanda be, gitxieneko batzuetatik ez gara librauko.

## Asfaltuak nagusi krisixak agintzen daben udan

Azken urtietako martxari jarraituta, barrero be kalietako asfaltuak izango dira udako obren artian protagonista, lur barrixa ipintzeko biharrekin batera. Horretako batzuk, gaiñera, hasitta dago honezkero. Txaltxa Zelaiko parkia, adibidez, itxitta dago aurreko astiaz geroztik, bertako baldosak jasotzen dihardue-eta. Ibilgailuen trafikuari ez detse eragingo, baiña bai, ordia, bertatik oiñez pasatzeko ohitturia edo premiña dakeneri, baitta parkia erabiltzen ebeneri be. Izan be, jubilaunen etxeko terrazia eta inguruak altxatu ahal izateko, hesiekin itxi dabe pasabidia eta, oiñezkuak, Untzagako eskillara mekanikuak erabiltzen segidu arren, parkia zuzen ziharkatu biharrian Txaltxa Zelaixan gora doian aldapadia segidu

bihar dabe, eskillarak bajau eta Juan Gisasola kalera pasatzia nahi izanez gero. Eta, parkian jarritta egoteko edo jolasian jarduteko, barriz, beste toki bat billau bihar: egunotan begibistakua dan moduan, askok epaitegi aldameneko parkia hartu dabe itxittakua ordezko modura. Baldosak jasotzeko biharrek amaittuta, telasfaltiko barrixa botako dabe baldosa barrixak ipintzen hasi aurretik. Obegisa enpresak garatzen diharduen biharrek 524.000 euroko aurrekontua dake eta Estatu maillan Udalerriendako emondako laguntasunen testuinguruan kokatu bihar dira, datozen aste eta hiliotan garatuko diran beste bihar gehixenen modura.

Laguntasun horren ondorixua dira, baitta be, aste honetan bertan Matsarixa eta ingu-



Matsarixa eta Valenciaganeko biala dira, bestiak beste, egunotan asfaltatzen diharduen herriko tokietako batzuk.



ruak asfaltatzeko hasittako biharrek. Tunela eta Azpiri enpresia hartzen daben pabilioi pareko zatixak asfaltua estrenauko dau hamendik gitxira, behin biharrek amaittuta. Egunotan asfaltatzen diharduen beste toki batzuk Egogaiñ kalia eta Valenciaganeko biala dira, bestiak beste. Lan horren era-

giñez, bestietan moduan apartatzeko toki batzuk desagertziarekin batera, trafikuan aldataketak izaten dihardue.

### Padelian jokatzeko pista Unben

Fondo Estatala aprobetxautu be, Unben padel pista barrixak egitteko biharri ekin detse

EMAKUME ETA GIZON  
MODA

Valenciaga

KONFEKZIOAK

☎ 943 20 22 33

ZULOAGATARREN, 7

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan

Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

NTRA. SRA. DE BEGOÑA

EHORZKETA-BEILATOKIA

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA:  
Txaltxa-Zelai, 4-6 - behea, ezk.

ZERBITZU IRAUNKORRA:  
☎ 943 201095 fax 943 202564

**OPORRETAN JUAN AURRETIK**

**KONTUAN HARTU BIHARREKUAK**

UDAN HERRITAR ASKOK ETA ASKOK EUREN ETXIA HUTSIK LAGA ETA KANPUAN EMONGO DITTUE EGUN BATZUK. Denpora tarte horretan etxia bakar-bakarrik laga ohi da eta, kasu askotan, inor ez da horrekin arduratzen. Horren aurrian, lapurretak edo bestelako disgustorik ez gertatzeko, Eibarko Udaltzainguk urtero gogoratzen deskuz jarraitzeko errezak eta komenigarriak diran hainbat aholku. Eurak diñuen moduan, "udako oporren sasoia ailegatzan danian, etxia bakarrik lagatzen dogunian, kontuan hartu biharreko gomendio batzuk emoten ahalegintzen gara, ahal dan neurrian sorpresarik ez izateko bueltan". Gomendixuen artian aittagarrirenak honetxek dira:



- Pasoko giltza guztiak itxitta lagatziarekin akordatzia (urarena, gasarena...).
- Ez laga etxian balixoko gauzarik.
- Zoiazan lekuko telefonua laga famelixako edo auzokoren bateri; postontziko giltza be norbaiti lagatzia ez dago txarto, kanpua gagozen bittartian kartak jaso ditzan.

- Atiak eta leihuak ondo itxita laga. Ez da komenigarria izaten pertsianak beharriño bajatzia, hori egiñ ezkeru errezago ikusten baitta etxia hutsik daguala.

- Eta ez ibilli daneri kontaktzen kanpua egoteko asmua dakazunik.

Horrek dira, Udaltzainguren berbetan, oporretan juan aurretik egin biharreko hainbat kontu, baiña ez bakarrik. Izan be, eurak espresuki zerbitzu batzuk eskintzen detsez Eibarko biztanleri, segurtasun haundixagua izan deixen: "Oporretan zoiazan tokiko helbidia Udaltzainguan laga leike, horretarako aukeria emoten baitugu gure artxibuan. Holan, etxian edo dandan (dendarixak zarienondako) zeozer pasau ezkeru, guk geuk eurekin harremantetan ipintzeko aukeria izango genduke. Eta kanpora juan barik, uda herrixan emongo dabeneri, barriz, auzuan normala ez dan zeozer ikusi edo entzun ezkeru 092 telefonora deitzeko gogoratu nahi detsegu. Gu ahalik eta azkarren juango gara zer pasatzen dan ikustera".

egunotan, oiñ arte teniserako pistetako bat eguan tokixan. Lau hillebeteko iraupena izango daben biharrek oin dala egun batzuk hasi dittue eta 659.000 euroko presupuestua dake. Padel pista barrixak reglemanduak agintzen dittuan

neurrixak eukiko dittu (10 x 20 metro) eta 2'50 metroko alturia eukiko daben kristalarekin itxitta egongo dira. Gaiñera, ikusliendako grada batzuk be egingo dittue biharren arduria daken Vías y Construcciones enpresakuak.



Fondo Estatala aprobetxau dabe Unben padel pistak egittek.

Alfa-San Andres Isasi kalia-ekin lotzeko eskillarak ipintzeko biharrek eta hainbat eskolatan egingo diran konponketa txixixak osatuko dabe udako biharren zerrendia.

**Igogailu eta sarrera barrixa Portalean**

Baiña ez dira horrek udan egingo diran bakarrik. Izan be, ekaiñaren amaieraz geroztik Portalea eraikiñian biharrek daguzela goguan izatia komeni da: bertan ipiñiko daben igogailurako biharrek martxan daguzela-eta, sarrerria goiko aldetik egin bihar dala kontuan hartzia komeni da (Eulogio Garate kaletik hain zuzen be).



Txaltxa-Zelaiko parkian lurra kanbixatzen diharduelako, itxitta dago.

**Artxibo barrixa betetzen**


Eta egunotan Eibarko Udal artxibua tokiz kanbixatzeko biharrek aurrera doiaz: aste honetan bertan Untzagaren zati bat itxitta egon da, oiñ arte Portalean egon dan artxibua osatzen daben materixal barrixak hartuko daben tokiraiño eruateko biharren ondorixoz. Ordu-tegi barrixak, toki batzuk egun batzuetarako itxitta egotia eta beste hainbat kontu ekarriko deskuz udak (begiratu 20. orri-xan emoten dittugun udako ordutegixak), atsedan hartzeko egun batzuekin batera. Eta bueltan herrixan pasautako guztien barri emoteko gertu egongo gara geu be.

**Luis Mari Gorosabel Aristegi-ren**


heriotzaren 8. URTEURRENA  
(2001-VII-31)

**EZ AGURRIK,**

GURE BIZITZAN ZAUDE BETIRAKO. MAITE ZAITUGU. *Etxekoak*



## TEEN- AJEA



**Batxilergoko 2. maila gainditu eta, beste ikasketa batzuei ekin baino lehen, boskote honek bidaia berezi bat egitea pentsatu zuen 2005eko udan. Europan zehar hara eta hona ibiltzea erabaki zuten eta bidaiatzeko modu egokiena Inter-Rail txartela erabiltzea zela pentsatu zuten. Abentura ez zitzaien falta izan.**

**XABIER LOPEZ, ANDER IZARRA, MIKEL GAUGER, DANEL GARRO ETA ANDONI ARROITAJAUREGI:**

## “Kultura eta herrialde berriak ezagutu nahi genituen”

**- Zein ibilbide jarraitu zenu-  
ten bidaian zehar?**

Hendaian hasi genuen bi-  
daia, handik Suitzara abiatu  
ginen, ondoren Alemaniara,  
Holandara gero, Belgikara os-  
tean eta, bueltatzeko, Fran-  
tziatik etorri ginen.

**- Zenbat denbora behar izan  
zenuten aipatutako ibilbide  
hori egiteko?**

Hiru astetan zehar ibili ginen  
herrialde horietan zehar.

**- Zer dela eta erabaki zenu-  
ten horrelako bidaia egitea?**

Batxilergoko 2. mailako kur-  
tsoa amaitu genuen eta beno,  
kultura eta herrialde berriak  
ezagutzeko gogoia genuenez,  
trena hartu eta Europan zehar  
ibiltzea otu zitzaigun. Eibar  
denbora baterako uztea nahi  
genuen eta gustatzen zitzaigun  
Inter-Railek eskaintzen  
duen bidaia mota. Bisitatu ge-  
nituen herrialde guztiak ikuste-  
ko modu merkeena dela derit-  
zogu Inter-Rail. Egia da azke-  
nean diru dezente uzten duzula  
bidaian, baina beste modu  
batean ezingo zenukeen hain-  
beste herrialde bisitatu aurre-  
kontu apal batekin.

**- Nola prestatu zenuten bi-  
daia?**

Egia esan ez genuen ezer  
prestatu. Treneko txartelak ge-

nituen, besterik ez. Tren gelto-  
ki batera heldu eta lo egiteko  
toki bila ibili behar ginen. Nahi-  
ko zorte ona izan genuen,  
nahiz eta Berlinen ia kalean lo-  
tan geratu behar izan ginen.

**- Gauzak zuek uste bezala ir-  
ten zitzaizkizuen?**

Joan aurretik txarreanean ipi-  
ni ginen, tren geltokietan edo  
kalean lo egingo genuela uste  
genuen, baina egunero izan  
genuen ohe gainean lo egiteko  
toki bat. Beraz, dena uste bai-  
no hobeto irten zen. Zortea  
eduki genuen.

**- Zer izan zen gehien gusta-  
tu zitzaizuen?**

Bisitatu genituen hirietatik  
Berlin izan zen gehien gustatu  
zitzaiguna, nahiz eta bertan  
izan ginenean eguraldi txarra  
egin. Oso hiri ederra da, eta  
merkea gainera.

**- Eta gutxien?**

Frantsesak. Tren geraleku  
eta beste toki askotan gauzak  
oso gaizki ipintzen zizkiguten,  
oztopo handiak jarri zizkiguten  
gure bidean.

**- Horrelako bidaia errepika-  
tuko zenukete?**

Bai. Hori bai, ibilbide ezber-  
dina egingo genuke, baina  
zoragarria izango litzateke  
horrelako abentura berriz ere  
bititzea.

# Bidaiak, bakoitzaren neurrira


Bidaia-agentziek zehaztutakotik at bidaiatzea ez da kimera bat. Egin daiteke, askok egiten dute gainera, beraz, posible da. Bakoitzak nahi duen bezala bidaiatzen du, aukera askea da, eta bidaiari independenteena gero eta arrakasta gehiago duenatarikoa da.

**B**idaia-agentziek antolaturikoen baino inplikazio eta dedikazio gehiago behar du bidaia independente bat prestatzeak. Hasiara batean desabantaila dela badirudi ere, bere alde onak ere baditu, izan ere, norakoaren gainean aurre informazio ugari lortzen da, eta bidaiatu aurretik eta bidaiatzerako orduan sor daitezkeen oztopoak gainditzen laguntzen du horrek. Bestetik, krisi ekonomikoa bizi den garai hauetan eta gazteek diru kontuetan nahiko motz ibiltzen direla jakina den momentuan, bi-

daietarako aurrekontua asko murriztu daiteke, dena bakoitzaren gustu eta aurrekontura egokitzen delako.

Honakoa da hartu behar den lehen erabakia: nora bidaiatu. Hori zehazteko, hala ere, hainbat alderdi izan behar dira kontutan. Lehenik, bakoitzaren lehentasunak, jaso dituen gomendioak eta abar. Bigarrenik, aurrekontua eta bidaiatzeko bakoitzak dituen egunak. Ondoren, bakarrik bidaiatzea edo laguntzarekin. Baita bidaiaren helburuak ere. Bestetik, helmuga lekuaren klima eta bidaiaren data. Eta azkenik, aukeratutako lekuaren egoera politikoa eta osasun egoera.

Bidaia independente baten aurrean oso garrantzitsua da helmuga lekuaren gainean ondo dokumentatzea, izan ere, ikusi eta biziko dena hobeto ulertzen lagunduko du horrek. Internetekin informazio iturriak anitzak dira gaur egun, baina gehiegizko informazio hori kaltegarria izan daiteke, beraz, informazio guzti hori filtratzea ezinbestekoa da. Bidaia-gidak (Lonely Planet,



Gazteen artean, trena da garraibiderik erabiliena.

Trotamundos...) eta interneteko informazioa ([www.viajeadictos.com](http://www.viajeadictos.com), [www.losviajeros.com](http://www.losviajeros.com) ...) ezinbestekoak dira, baina baita zuek aukeratutako lekura bidaiatu duten familiakide edo lagunek (edo interneteko foroetako erabiltzaileek) kontatutakoa ere.

## Europa trenean

Nola bidaiatu? Distantzia, aurrekontu, behar eta erosotasunaren arabera erabakiko litzateke hori, besteak beste. Hegazkina izaten da garraio erabilienetarikoa, batez ere bidaldi luzeetan, eta txartelak hartzeko betiko agentzietara jo daiteke edo, azken aldiak askok egiten duten bezala, internet bitartez.

Auto, motor, autobus eta itsasontziak ere aukera interesgarriak dira, baina gazteen artean arrakasta handia daukana trena da. Inter-rail deritzona izan da trena gazteen artean bidaiatzeko aukera era-

kargarri bihurtu duena. Inter-railekin Europako 30 herrialdetan zehar bidaiatzeko aukera luzatzen da, eta horretarako aukera ezberdinak eskaintzen dira.

2007ra arte zonaldetan banatzen ziren txartelak, baina orain aukera bi daude: globala (herrialde guztiak bidaiatzeko aukera) edo lokala (herrialde bat bisitatzeko). Denboraren arabera ere aukera bi daude: 22 egun edo hilabete bat. Hala ere, txartel moldakorrak ere badaude, denbora zehatz batean egun kopuru batean bidaiatzea uzten dutenak.

Prezioak adinaren, bidaiatuko den denboraren eta aukeratutako txartel motaren (globala eta lokala) arabera banatzen dira. Horrela, 26 urtetik behar koentzat 32 eurotik 399 eurotarainoko txartelak daude, eta 26 urtetik gorakoentzat 49 eurotik 809 eurotarainokoak. Informazio gehiagorako [www.interrail.net](http://www.interrail.net) edo [www.inter-rail.org](http://www.inter-rail.org)




bide

– GIDA ETA ARMA-BAIMENAK  
– ZIURTAGIRI MEDIKUAK

20  
urte  
zurekin

Ariktxaneko zubia, 1 - behea (EIBAR) Tel. 943 200 501

Aldez aurretik txandarik hartu gabe




## Julen Garro xakelaria Espainiako txapelketan

**DOMEKAN AMAITUKO DA GRANADAN ASTE OSOAN LEHIAN** diharduen 16 urtetik beherakoen Espainiako xake txapelketa. Han da Klub Deportiboko Julen Garro, kadete mailako Euskadiko txapelduna, beste 155 jokalarirekin batera. Txapelketa horretarako proba gisa, eibartarra Benasqueko txapelketa irekian izan da, hor oraindik eta jokalaria gehiagorekin lehian (469 izan dira guztira). Julenekin batera, beste hiru eibartar izan dira: Haritz anaia, Diego Olmo eta Edu Olabe. Julenek, esaterako, 11 aldiz Espainiako txapelduna izan den Nieves García aragoiarra gainditu zuen.


## Salmón-entzat Eibar Hiria bolo-palma torneoa

**BEDERATZI TXIRLOREN ALDEA KENDU ZION** Jesus Salmón Eibar Hiria bolo-palmako XXIII. edizioko irabazleak bigarren postuan sailkatutako Oscar González taldekideari. 426 txirlo etzan zituen irabazleak eta 417 bere atzetik sailkatuta-



## Patxi Usobiagak bolada onean jarraitzen du

**MUNDUKO TXAPELKETA IRABAZI ONDOREN, GARAI-PENEN BIDETIK** jarraitzen du Patxi Usobiaga eskalatzaileak eta Munduko Kopako aurreneko proba irabazi zuen astelehen gauean Chamonixen eibartarrak. Usobiagak lehiaketa ia perfektua osatu du eta, bai sailkapen probetan eta bai tafinalerdian ere, top egitea lortu zuen; finalean, berriz, azken heldulekua bakarrik falta izan zuen ibilbidea betetzeko. Bere atzetik, Sachi Amma



izan zen 2. sailkatua, eibartarrak baino sei mugimendu gutxiagorekin; podiuma osatu zuen David Lamak azken honen baino mugimendu bat beherago erori zen. Garaipen erosoak, beraz, eibartarrak lor-

tu zuena. Asteburu honetan World Games lehiaketan hartuko du parte, Taipeiko Kaoshsiung hirian; Munduko Kopako hurrengo proba Bartzelonan jokatu da abuztuaren 8/9ko asteburuan.



Mutriku bihar jokatu den torneoaren kartela.

## Urbateko waterpolistak Mutriku Buzti Zaitzez-en

**BIHAR, MUTRIKU SORTU ZELA 800. URTEURRENAREN EGITARAUAREN** barruan, waterpolo txapelketa jokatu da kostaldeko herrian, Urbat-Urkotroniketik antolatuta. Buzti Zaitzez esklerosi anizkoitzaren aldeko programa bultzatzeko prestatutako torneo-

an, zortzi taldek hartuko dute parte: Pontevedra, Master Askartza, Leioa Waterpolo, C.D. Bilbao, Hernani, Urbat eta azken bi hauetako jubenil mailako taldeak ere. Jasotako diru kopurua Esklerosi Anizkoitzaren Aldeko Federazioarentzat izango da.



## Romarate igerilariak agintzen jarraitzen du Espainiakoetan

**EBAKUNTZA BAT DELA MEDIO, TARTE BATEAN KONPETIZIOTIK KANPO** egon eta gero, lehenagoko maisutasunez bueltatu da igerilekuetara Ander Romarate. Xixonen jokatutako Gaztediaren Espainiako txapelketetan, eibartarrak bizkar erako 50 eta 100 metroko probak bereganatu zituen eta

libre erako 50 metrotakoan bigarrena izan zen.

Bestalde, Jone Calvok lan bikaina egin zuen Bilboko Klub Deportiboaren zeharkaldian eta, Plentziako hondartzan hasi zen proban, 3. postua eskuratu zuen, Errioxako batekin lehia bizian. Taldeka, gainera, Urbat izan zen garaile.





## Lambretta Klubaren kontzentrazioa




**ASTEBURUAN GUREAN EGINDAKO LAMBRETTA MOTORREN KONTENTRAZIOA** arrakastatsua gertatu zen berriz ere eta oraingoan, gainera, 2 CV automobilak lagun izan dituzte: Burgos, Salamanca, Vitoria, Logroño eta baita Frantziatik ere etorritako 100 bat motorek egin zuten bat kontzentrazioan. Bestalde, Lambretta Klubak Arrateko Krabelin hotelean lagun birendako afaria eta gaua bertan pasatzea zozketatu ditu eta zenbaki saritua 866 izan da (erretserbakoak 1.028 eta 1.718 izan dira).




## Jai giroa nagusi San Kristobalen

**ASTEBURU OSOAN JAI GIROA NAGUSI IZAN ZEN SAN KRISTOBAL AUZOAN**, bertako jai batzordeak prestatutako egitarauak bestelako aukerarik ez zuen ematen-eta. Barixaku eta zapatu gauean Siniestro Total, Los Manolos eta Gertrudis taldekoak protagonista izan ziren, baina beste- la ere, egunez ez zen aspertzeko modurik izan auzoan. Bestalde, Jai Batzordeak egindako zozketan zenbaki saritua 2.000 izan da (erretserbakoak 1.492 eta 0255 dira). Irabazleak lagun birendako asteburu-pasa



egiteko txartela jasoko du, berak aukeratzen duen parado- rerako.



Argazkiak: LEIRE ITURBE

## Jende ugari Amañako jaietan

**AURREKO ASTEBURUAN JENDEZ GAINEZKA EGIN ZUTEN** Amañako kaleek, auzoko jaietan. Ekitaldi guztiak izan ziren arrakastatsuek eta batzuetan, gainera, jendetza batzera ailegatu ziren, adibidez 400 lagunendako paellaren inguruan gertatutako moduan. Barixaku gaueko rock kontzertuan ere plazak gainezka egin zuen eta asteburu osoan ederto pasatu zuten auzokoek zein auzora gerturatutakoek.






## Perretxikoak bereizten laguntzeko gida

**JUAN CARLOS ESTURO PERRETNIKOLARI EIBARRAK** *Hongos. Manual para recolectar las principales setas y hongos comestibles de forma segura* izenburuko liburua kaleratu du Txertoa argitaletxearen eskutik. Liburua mikologian aditua ez den jendearentzat pentsatuta idatzi du, perretxiko onak eta txarrak ondo bereizten laguntze-

ko asmoarekin. Lanbidez ingeniari teknikoa den eibartarraren liburuak 176 orrialde ditu eta hiru atal nagusitan bereizi du lana: lehenengo eta behin, jatekoak diren perretxikoak aurkezten ditu, ondoren perretxiko txarrak eta, amaitzeko, jan daitezkeen perretxikoak biltzeko eta prestatzeko hainbat aholku eskaintzen dizkio irakurleari.



## Antxon Urrosoloren liburu berria



Liburuaren egilea, Aitor Buendía kazetariarekin.

### ESTRESARI AURRE EGITEKO PROPOSAMENEKIN DATORKIGU

Antxon Urrosolo kazetari eibartarra bere azken lanean: *La Cocina del Monasterio* (Plaza & Janés). Gasteizen, katedralean aurkeztutako liburua Penintsulako monastegi eta komentuetako sukaldeetan hilabeteetan emandako orduen emaitza da eta gastronomiatik haratago, sukaldaritzaren eta atsedenaldia uztartu dituzte egileak.

## Abontzako Iturrirxa Elkarteko zozketak baditu irabazleak

**EKAINAREN 6-KO LOTERIA NAZIONALEKO LEHENENGO SARI BIEI LOTUTA**, Abontzako Iturrirxa Elkartek honako sariak banatu ditu: Jose Villarrek Kantabriako Villa Pasienga 4 izarretako hotelean asteburua (spa barne) pasatzea irabazi du (5.736 zenbakia) eta

Josemari Gorritiberea zumaia-rrak, berriz, lagun birendako afaria eta gaua eskuratu ditu Krabelin hotelean (4.997 zenbakia). Zozketaren antolatzaileek sarituak zoriondu nahi dituzte eta, bide batez, errifarekin kolaboratu duten guztiei esker eman nahi dizkiete.



## Ustekabekoak Gasteizen izango dira aurten ere

**AZKEN URTEOTAKO MARTXARRI JARRAITUTA, GASTEIZEN EGUN BATZUK BARRU** ospatzen hasiko diren Ama Zuriaren jaietan izango dira Ustekabe fanfarreko gazteak, euren musikarekin jaiak alaitzen. Lehenengo emanaldia hilaren 25ean eskainiko dute, Blusa Egunean, bertara gonbidatu dituen Los Alegrios koadrila-

koekin batera 18 orduko jardunaldian. Hala ere hori "beroketa" baino ez da izango eibartarrentzat, abuztuaren 5ean hasi eta bost egunez jarraian Gasteizen izango baitira jotzen. Aurten, gainera, beste batzuetan baino lagun gutxiago joango dira Gasteizera (15 musikari) eta, horregatik, ezin izango dute atseden askorik hartu.



## laburrak

### GITARRA KONTZERTUA

Eibarko Eliza Ebangelikoak biharko gitarra kontzertua antolatu du. Emanaldia 20.00etan hasiko da, San Andres elizako klaustroan eta Costa Ricako Pablo Ortiz musikoak eskainiko du.

### HIZKUNTZA MUSIKALA

Juan Bautista Gisasola Musika eskolak aditzera eman duenez, 2009-2010 ikasturterako hizkuntza musikaleko taldeen zerrendak eta ordutegiak Udalaren web orrian ([www.eibar.net](http://www.eibar.net)) argitaratu dituzte eta bertan kontsultatu daitezke.

### EGO UNIAN

Euskal Herriko Gazte Orkestrakoak eguaztenaz geroztik Eibarko Egoitza Zentroan (Ubiertsitate Laboralean) dihardute, udako topaketen barruan euren errepertorio sinfonikoko programazio musikalik zailenarikoa prestatzen. Programazio horrekin bost kontzertu eskainiko ditu Euskadiko hainbat aretotan.

### DOKUMENTALAK GAZTETXEAN

Tallarra gaztetxeok dokumental emanaldiak antolatu dituzte uztaileko eguen gauetarako. Atzo gauean Mikel Laboaren bizitzari buruzkoa eskaini zuten eta datorren astean, hilaren 23an, 22.00etatik aurrera Arrhash izenburukoak Riff-eko gerran arma kimikoen erabileraren berri emango du.

Ego Ibar  
Zine Kluba

# ZINEMA KALEAN


Untzaga plazan  
gaueko  
22.30etan



## UZTAILAK 30

**Francia. 2008. 106 minutu.**  
**Zuzendaria: Dany Boon**  
**Aktoreak: Kad Merad, Zoé Felix, Dany Boon, Anne Marivin...**

Philippe Abrams posta bulego bateko arduraduna da Salon de Provence herrian. Bere emazte Juliek depresio pasarteak izaten ditu eta Philippen bizitza infernua bilakatzen da. Emaztea animatzeko helburuarekin, Philippe trikimailuetan hasiko da laneko lekualdatzea lortzeko. Frantziako erriberara joan nahi du, baina tranpetan dabilela harrapatuko dute eta hegoaldeko biztanleek hainbeste gorrotatzen duten iparraldeko herri txiki horietakora bidaliko. Hotz egiten du eta hizkuntza aldrebestua dute...



## ABUZTUAK 4

**Erres.Bat/AEB. 2008. 94 minutu.**  
**Zuzendaria: Mark Herman**  
**Aktoreak: Asa Butterfield, Jack Scanlon, Amber Beatie...**



Brunok zortzi urte ditu eta ofizial nazi baten seme kutuna da. Bere aitak gora egingo du laneko arduetan eta Berlingo etxe goxoa laga eta zonalde isolatu batera joango dira bizi izatera. Mutikoak ez du egiteko askorik eta, asperraldiak eta jakinminak deituta, aitaren aginduei kasurik egin gabe lorategitik haratago irtingo da. "Abeletxe" deitzen dioten eraikuntzara hurbilduko da eta adin bereko beste mutil bat ezagutuko du. Alanbresiaren beste aldean bizi da Shmuel...



## ABUZTUAK 6

**AEB. 2008. 114 minutu.**  
**Zuzendaria: Ed Harris**  
**Aktoreak: Ed Harris, Renée Zellweger, Viggo Mortensen...**

Mexiko-Berriko mendebalde zaharrean dago girotua filma. 1882. urtea da eta Virgil Cole polizia federala eta bere kide Everett Hitch bakearen aldeko ordezkariak bihurtu dira haien inguruan. Legerik gabeko zonalde batean egiten dute lan eta holakoetan argi txiki guztiak dira handi. Appaloosan, ordea, Randal Bragg arrantxo-jabe boteretsuak bere goizkileek nahi duten egin dezaten lagatzen du. Tarte berean, Appaloosako polizia ere erail dute eta hiltzailearen bila joango dira Virgil eta kide Everett...



## ABUZTUAK 11


**Italia/Frantzia. 2008. 110 minutu.**  
**Zuzendaria: Paolo Sorrentino**  
**Aktoreak: Toni Servillo, Anna Bonaiuto, Flavio Bucci...**

Erroman, goizaldean, mundu guztiak lo egiten duen bitartean, gizon bat esna egoten da; Giulio Andreotti da bera. Baina badu esna egoteko arrazoirik: liburuak idatzi behar ditu, lan egin, moda giroetan mugitu eta, azkenik, otoitz egin beharra du. La-saia da bera, argia eta zuzena. Berrogei urte badira boterearen sinbolo bihurtu dela Andreotti Italian. 90. hamarkada hasi berria da eta erronka berri bati aurre egiteko dihardu prestatzen: ministro moduan egingo duen zazpigarren agintaldia hartuko du laster...




# laztanak emoten...


Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztana aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, SUSANA, hillairen 23an urtiak beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat laguneren partez.



Zorionak, PAULA, domekan urtia beteko dozulako. Patxito bat amatxo eta aitaxoren partez.




Zorionak, JUNE Artetxe Artetxe, astelehenian bost urte beteko dozuz-eta. Famelixaren partez.



Zorionak, CONCHI Fernández, zure urtebetetzian. Zure mutillaren partez.



Zorionak, ANDER (hillairen 12xan, 11 urte) eta JON (hillairen 13an, 8 urte) urtiak egin dozuelako. Famelixaren partez.



Zorionak, GORKA eta LEIRE, bixar ezkontzen zarielako. Famelixaren partez.

## JAIOAKOAK

- Naia Larrañaga Arrate. 2009-VII-4.

## HILDAKOAK

- Isidoro García Macho. 96 urte. 2009-VII-11.
- Jose Manuel Azpiri Atxa. 76 urte. 2009-VII-11.
- Concha Iriondo San Ildefonso. 82 urte. 2009-VII-13.


## zinea filmak zinea filmak zinea

### "Harry Potter y el misterio del príncipe" **untzaga**

**Zuzendaria:**  
David Yates  
**Aktoreak:**

**Daniel Radcliffe, Rupert Grint, Emma Watson, Julie Walters...**

Voldemort-ek gero eta indar gehiago lortzen dihardu eta aztien eskolara ere ailegatu dela dirudi. Baina, Harry harrituta dago: Dumbledorek bestelakoak ditu buruan eta Slughorn irakaslearen laguntza baino ez du nahi...



# DENBORAPASAK

SUDOKUJA

9	7			1		8	
8		3		6		1	
			4	7		5	9
	6	9			4		
3		2		5	7		4
4			6	1			
6			8	9		1	7
	3	1			5		
		8	1		6	2	

2	6	1	4	7	9	5	3	8
9	8	5	6	3	2	1	4	7
3	4	7	8	5	1	2	6	9
7	1	9	5	8	3	4	2	6
5	3	4	7	2	6	8	9	1
6	2	8	1	9	4	3	7	5
8	7	2	3	6	5	9	1	4
1	5	3	9	4	7	8	8	2
4	9	6	2	1	8	7	5	3

AURREKOAREN EMATZA

## horoskopoa

**ARIES**

Uda bero-beroa daukazu aurretik... eta ez klimarengatik. Zure sex-appeal hori gailurrean izango duzu eta denek zure gainean ipiniko dituzte begiak.

**TAURUS**

Nahiko lanpetuta ibiliko zara, baina izango duzu aukera udak eskaintzen dituen gauza ezberdinetaz gozatzeko. Izan pazientzia pixkat.

**GEMINI**

Gutziz pozik sentituko zara, erabat asetuta. Ez zaizu ezer faltako, ezta ezer sobratuko ere. Une zoragarriak biziko dituzu, ahaztezinak.

**CANCER**

Zure barrenean eragin handia izango duen uda biziko duzu. Bizitza aldatuko dizu, agian. Irrifarrea zure ahoan, behintzat, ez da faltako.

**LEO**

Beroaz gutxiago kexatu eta saiatu zaitez udaz gehiago gozaten. Pentsa urteko sasoi honetan egin ditzakezun gauzetan. Anima zaitez!

**VIRGO**

Urteko estres eta itomen guztiak berehala pasatuko zaizkizu. Oso ondo pasatzen dakien pertsona zara eta orain ez da gutxiagorako izango.

**LIBRA**

Abentura bila bazabiltza, mota guztiakoa biziko dituzu udan; batez ere amodiozkoak. Inoiz baino ederrago sentituko duzu zure burua.

**SCORPIUS**

Badakizu, udan gauza arinak jan eta likido asko edan behar dira. Bestela, logikoak dira tripakominak eta halakoak. Zure osasuna zaindu!

**SAGITTARIUS**

Uda bitxia zurea, baina zoriontsua ere bai. Gauza berri ugari egiteko aprobeztatu duzu eta gustatzen zaizkizun mila gauza aurkituko.

**CAPRICORNIUS**

Dei garrantzitsua jasoko duzu, udako plan guztiak aztoratuko dizkizuna. Hala ere, ez galdu pazientzia, erlaxatu zaitez eta datorrenaz gozatu.

**AQUARIUS**

Udako amodio istorioak umeen kontuak direla? Kontatuko didazu oportunitate bueltan. Astroek ez dute, behintzat, zuk bezala pentsatzen.

**PISCIS**

Ai ene, Piscis maitea, udako abestia gorrotatzen duzula beti oihuka zabilta, baina ederki dantzatzen duzula... Non dituzu printzipioak?

**Salbatore Deuna****ABUZTUAK 8**

**08.00.-** Kanpai joaldia eta txupinazoa.

**ABUZTUAK 9**

**08.00.-** Kanpai joaldia eta txupinazoa.  
**11.00.-** Meza trikitilariekien.  
**11.30.-** Luncha.  
**13.00.-** Anaiarteko bazkaria.  
**17.00.-** Herri-kirolak: Bihurri eta Zelai aizkolariak Kortina harrijasotzailea Soarte eta Areta idi-probetan.  
**20.00.-** Erromeria trikitilariekien.

**Azitaingo jaiak****ABUZTUAK 14**

**19.00.-** Txapligu jaurtiketa eta kanpai joaldia  
**19.30.-** Meza eta Salbea Andra Mariari parrokian.

**ABUZTUAK 15**

**10.30.-** Kanpai joaldia.  
**11.00.-** Herri meza parrokian.  
**11.30.-** Umeentzako jolasak.  
**12.00.-** Dantza txapelketa.  
**12.30.-** Nagusientzako jolasak.  
**13.00.-** Herri-kirolak: aizkolariak, harrijasotzaileak, trontza-lehiaketa, txinga-lasterketa eta kaskara-batze norgehiagoka.  
**14.00.-** Jaialdiaren amaiera.

**Inguruko jaiak****UZTAILAK 22**

**Madalenak.-** Mutriku eta Oñati.

**UZTAILAK 25**

**Santixauak.-** Ermua, Garai, Soraluze eta Goimendi.

**UZTAILAK 26**

**Santa Ana.-** Mendaro, Soraluze eta Garai.

**UZTAILAK 31**

**San Inazioak.-** Azpeitia, Antzuola eta Elorrio.

**ABUZTUAK 1**

**Kopraixak.-** Itziar.

**ABUZTUAK 10**

**Sallobenteak.-** Sallobente (Ermua eta Elgoibar) eta Oñati.

**ABUZTUAK 15**

**Andramaixak.-** Azkoitia, Elgeta, Ondarru eta Soraluze.

**ABUZTUAK 16**

**San Rokeak.-** Deba, Elgoibar, Mallabia eta Ondarru.

**ABUZTUAK 24**

**San Bartolomeak.-** Elgoibar.

**ABUZTUAK 31**

**San Roman Nonatoa.-** Mallabia

**IRAILAK 2**

**San Antolinak.-** Lekeitio

**Udako ordutegiak****PEGORA**

**09.00/13.30.-** Astelehenetik barixakura  
 Tel. 010 eta 943 708 400. pegora@eibar.net

**PORTALEA**

**08.00/21.00.-** Astelehenetik barixakura (uztailean)  
**08.00/14.00.-** Astelehenetik barixakura (abuztuan)  
 Tel. 943 708 439. cultura.ei@eibar.net

**LIBURUTEGIA**

**09.00/13.30 eta 16.30/19.30.-** Astelehenetik barixakura (uztailean)  
**09.00/13.30.-** Astelehenetik barixakura (abuztuan) / Itxita 10etik 16ra arte  
 Tel. 943 708 437. biblioteca.ei@eibar.net

**ARMAGINTZAREN MUSEOA**

**16.00/20.00.-** Martitzenetik barixakura (uztailean)  
**10.00/13.30.-** Martitzenetik barixakura (abuztuan)  
 Tel. 943 708 446. museo.ei@eibar.net

**KIROL INSTALAZIOAK ABUZTUAN****Ipurua**


**09.00/13.00 eta 16.00/20.00.-** Itxita 10etik 23ra arte  
**10.30/20.00.-** (Kanpoko igerilekua)

**Unbe**

**10.00/22.00.-** Itxita 3tik 9ra arte

**Orbea**

**08.00/15.00.-** Ez da itxiko



**farmaziak**

- 17, barixakua**  
EGUNEZ Larramendi (Calbetón, 19)  
GAUEZ Larramendi (Calbetón, 19)
- 18, zapatua**  
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)  
GAUEZ Ibarrondo (Zeharkalea, 2)
- 19, domeka**  
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)  
GAUEZ Larramendi (Calbetón, 19)
- 20, astelehena**  
EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)  
GAUEZ Ugarte (Sta. Zezilia, z/g)
- 21, martitzena**  
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)  
GAUEZ Larramendi (Calbetón, 19)
- 22, eguaztana**  
EGUNEZ Las Heras (Sostoatarren, 20)  
GAUEZ Las Heras (Sostoatarren, 20)
- 23, eguena**  
EGUNEZ Larramendi (Calbetón, 19)  
GAUEZ Larramendi (Calbetón, 19)
- 24, barixakua**  
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)  
GAUEZ Larramendi (Calbetón, 19)
- 25, zapatua**  
EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)  
GAUEZ Aranburu (Gipuzkoa etor., 46)
- 26, domeka**  
EGUNEZ Las Heras (Sostoatarren, 20)  
GAUEZ Las Heras (Sostoatarren, 20)
- 27, astelehena**  
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)  
GAUEZ Alberdi (Zubiaurre, 9)
- 28, martitzena**  
EGUNEZ Larramendi (Calbetón, 19)  
GAUEZ Cortina (Zubiaurre, 29)
- 29, eguaztana**  
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)  
GAUEZ Ugarte (Sta. Zezilia, z/g)
- 30, eguena**  
EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)  
GAUEZ Ibarrondo (Zeharkalea, 2)
- 31, barixakua**  
EGUNEZ Larramendi (Calbetón, 19)  
GAUEZ Larramendi (Calbetón, 19)

**ABUZZTUA**

- 1, zapatua**  
EGUNEZ Las Heras (Sostoatarren, 20)  
GAUEZ Cortina (Zubiaurre, 29)
- 2, domeka**  
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)  
GAUEZ Larramendi (Calbetón, 19)
- 3, astelehena**  
EGUNEZ Las Heras (Sostoatarren, 20)  
GAUEZ Ibarrondo (Zeharkalea, 2)
- 4, martitzena**  
EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)  
GAUEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
- 5, eguaztana**  
EGUNEZ Larramendi (Calbetón, 19)  
GAUEZ Cortina (Zubiaurre, 29)
- 6, eguena**  
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)  
GAUEZ Larramendi (Calbetón, 19)
- 7, barixakua**  
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)  
GAUEZ Larramendi (Calbetón, 19)
- 8, zapatua**  
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)  
GAUEZ Ibarrondo (Zeharkalea, 2)
- 9, domeka**  
EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)  
GAUEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
- 10, astelehena**  
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)  
GAUEZ Larramendi (Calbetón, 19)
- 11, martitzena**  
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)  
GAUEZ Cortina (Zubiaurre, 29)
- 12, eguaztana**  
EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)  
GAUEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
- 13, eguena**  
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)  
GAUEZ Cortina (Zubiaurre, 29)
- 14, barixakua**  
EGUNEZ Las Heras (Sostoatarren, 20)  
GAUEZ Ibarrondo (Zeharkalea, 2)
- 15, zapatua**  
EGUNEZ Larramendi (Calbetón, 19)  
GAUEZ Cortina (Zubiaurre, 29)
- 16, domeka**  
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)  
GAUEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
- 17, astelehena**  
EGUNEZ Urizar (J. Etxebarria, 7)  
GAUEZ Ibarrondo (Zeharkalea, 2)
- 18, martitzena**  
EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)  
GAUEZ Elorza (J. Gisasola, 18)
- 19, eguaztana**  
EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)  
GAUEZ Cortina (Zubiaurre, 29)
- 20, eguena**  
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)  
GAUEZ Ibarrondo (Zeharkalea, 2)
- 21, barixakua**  
EGUNEZ Urizar (J. Etxebarria, 7)  
GAUEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
- 22, zapatua**  
EGUNEZ Goikoetxea (Ibarkurutze, 7)  
GAUEZ Ugarte (Sta. Zezilia, z/g)
- 23, domeka**  
EGUNEZ Goikoetxea (Ibarkurutze, 7)  
GAUEZ Goikoetxea (Ibarkurutze, 7)
- 24, astelehena**  
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)  
GAUEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
- 25, martitzena**  
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)  
GAUEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
- 26, eguaztana**  
EGUNEZ Urizar (J. Etxebarria, 7)  
GAUEZ Ugarte (Sta. Zezilia, z/g)
- 27, eguena**  
EGUNEZ Goikoetxea (Ibarkurutze, 7)  
GAUEZ Aranburu (Gipuzkoa etor., 46)
- 28, barixakua**  
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)  
GAUEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
- 29, zapatua**  
EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)  
GAUEZ Aranburu (Gipuzkoa etor., 46)
- 30, domeka**  
EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)  
GAUEZ Zulueta (S. Agustin, 5)
- 31, astelehena**  
EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)  
GAUEZ Aranburu (Gipuzkoa etor., 46)

**IRAILA**

- 1, martitzena**  
EGUNEZ Urizar (J. Etxebarria, 7)  
GAUEZ Alberdi (Zubiaurre, 9)
- 2, eguaztana**  
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)  
GAUEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
- 3, eguena**  
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)  
GAUEZ Aranburu (Gipuzkoa etor., 46)
- 4, barixakua**  
EGUNEZ Goikoetxea (Ibarkurutze, 7)  
GAUEZ Ugarte (Sta. Zezilia, z/g)

**telefono jakingarriak**

SOS deiak .....	112
Pegora .....	010
Udaletxea .....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB .....	943 20 38 43
Epaitegia .....	943 03 34 00
Iberdrola .....	901 20 20 20
Naturgas .....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak.	943 46 46 22
Gurutze Gorria..	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekuia.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza .....	943 53 17 00
Eusko Tren .....	902 54 32 10
Pesa .....	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon. ..	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63

**autobus ordutegiak**

**EIBAR-DONOSTIA.** Egutero: 07.30, 08.50, 10.30, 13.30, 14.30 eta 18.30. Laneguna: 07.00, 08.00, 15.30 eta 21.05. Jaieguna: 09.50, 13.30, 18.30 eta 20.30. **DONOSTIA-EIBAR.** Egutero: 12.30, 15.00, 17.30, 19.30 eta 20.45. Laneguna: 07.00, 09.30, 13.30, 14.30 eta 18.30. **EIBAR-BILBO.** Laneguna: 06.40etatik 20.40etara orduo. Zapatua eta jaieguna: 07.40etatik 21.40etara orduo. **BILBO-EIBAR.** Laneguna: 06.40etatik 21.40etara orduo. Zapatua eta jaieguna: 07.40etatik 21.40etara orduo. **EIBAR-GASTEIZ.** Egutero: 06.15, 10.45, 14.45 eta 18.45. Zapatua: 06.45, 10.45, 14.45 eta 18.45. Jaieguna: 08.45, 10.45, 14.45, 16.45, 18.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Egutero: 08.30, 12.30, 16.30 eta 20.30. Jaieguna: 08.30, 10.30, 12.30, 16.30, 18.30 eta 20.30. **EIBAR-IRUÑA.** Laneguna: 07.45 eta 13.30. Jaieguna: 07.50 eta 18.00. **IRUÑA-EIBAR.** Laneguna: 10.45 eta 18.00. Jaieguna: 10.45 eta 21.00. **EIBAR-ARRATE.** Zapatua: 14.00. Domeka eta jaieguna: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapatua: 14.30. Domeka eta jaieguna: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30. **EIBAR-ELGETA.** Laneguna: 13.30 eta 20.20. Domeka eta jaieguna: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Laneguna: 14.00 eta 20.50. Domeka eta jaieguna: 12.50 eta 19.30. **ERMUA-MENDARO.** Astelehenerdik ostiralera: 06.20, 07.10, 07.50 (07.50etatik 22.20etara orduerdiro). Zapatua-Domeka-Jaieguna: 06.50-etik 21.50-era orduo. **MENDARO-ERMUA.** Laneguna: 06.55-etatik 21.55-etera orduerdiro. Zapatua-Domeka-Jaieguna: 07.55-etik 21.55-era orduo.

**tren ordutegiak**

**EIBAR-BILBO.** Laneguna: 06.13etatik 21.13etara orduo. + 10.35 eta 21.38. **BILBO-EIBAR.** Laneguna: 05.57etatik 20.57etara orduo. + 09.34 eta 20.34. **EIBAR-DURANGO.** Egutero: + 22.18. **EIBAR-DONOSTIA.** Laneguna: 06.15etatik 20.15etara orduo. + 10.35 eta 21.38. **DONOSTIA-EIBAR-ERMUA.** Laneguna: 05.47etatik 20.47etara orduo.

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

– Pisua salgai Eibarko erdialdean. Sar-tzeko prest. Aukera paregabea. Tel. 629-533695.

– Legarreko dorreetan pisua salgai. 3 lo-gela, egongela, sukaldea, komun bi, bal-koia eta despentsa. Aukera paregabea. Tel. 653-733357.

### 1.2. Errentan

– Eibarren pisua hartuko nuke alokai-ruan. Merke. Tel. 659-148649. Angelica.

– Eibarren pisua alokagai. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Dena kanpora begira eta berriztu berria. Deitu 15.00etatik 16.00etara eta 21.00etatik 22.00etara. Tel. 943-208683. Maria.

– Bidebarrieta 28an pisua alokagai. Lo-gela bi. Tel. 652-764566.

– Eibarko erdialdean pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 685-753512.

### 1.3. Konpartitzeko

– Neska bi behar dira logela konpartitze-ko. Ohe bi eta bainugelarekin. Donostia-ko EHUren ondoan. Merke. Tel. 665-700027.

### 1.4. Etxe-trukaketa

– Elgoibarko Babes Ofizialeko pisua (To-letxegain geltoki parean) Eibarko beste batengatik aldatuko nuke. 70 m<sup>2</sup>. Logela bi, egongela, sukaldea, komuna eta tras-teroa. Garajea. Tel. 659-381317.

## 2. Motorra

### 2.1. Salgai

– C-15 furgoneta salgai. 12 urtekoa. 250.000 km. Egoera onean. 800 euro. Tel. 677-388629 edo 943-201504.

– Renault Clio RL 1.2 salgai. 55cv. Urdi-na. 1998koa. 123.700 km. Tel. 686-703907.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

– Gizon euskalduna eskaintzen da edo-zein lanetarako. Tel. 658-719676. Enrike.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Interna edo externa. Tel. 646-235195.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaindu, sukaldari laguntzaile moduan eta taber-netan harrikoa egiteko. Tel. 645-461600. Arrate.

– Haur Hezkuntza ikasten diharduen neskak abuztuan umeak zainduko litzu-ke. Esperientzia. Tel. 626-752117.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Interna edo externa. Tel. 669-966611.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik.

Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

## 1. ETXEBIZITZA

### 1.1. Salgai

### 1.2. Errentan

### 1.3. Konpartitzeko

### 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

### 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

### 3.1. Salgai

### 3.2. Errentan

– Neska eskaintzen da abuztuan lan egi-teko. Tel. 663-786976.

– Neska eskaintzen da umeak edo nugu-siak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 648-603029.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Interna edo ex-terna. Tel. 638-221948.

– Mutila eskaintzen da eraikuntzan, za-ma-lanetan eta garbiketa lanetan jardu-teko eta sukaldari moduan. Tel. 662-037553. Julio.

– Neska arduratsua eskaintzen da arra-tsaldeetan eta asteburuetan umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Esperientzia. Tel. 646-048823.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa laneta-rako. Tel. 679-905986 edo 633-238165. Miriam.

– Neska eskaintzen da umeak eta nugu-siak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 667-098837. Maria.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanak egi-teko. Tel. 689-566581.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Esperientzia. Tel. 628-734785.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Esperientzia. Tel. 646-235195.

– Mutila eskaintzen da eraikuntzan lan egin, garbiketa lanetarako, sukalde-la-guntzaile moduan edo kamarero. Tel. 662-037553.

– Gizonezkoa eskaintzen da sukalde-la-guntzaile edo igeltsero moduan eta za-ma-lanetarako. Tel. 635-016941.

– Emakumea eskaintzen da umeak zain-du eta garbiketa lanetarako. Tel. 657-142376.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 671-343612 edo 943-531931.

– Emakumea eskaintzen da uztaila, abuztua eta irailean umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 636-841158. Doris.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Esperientzia. Tel. 667-098837.

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

### 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.1. Eskaerak

### 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

### 6.1. Salgai

### 6.2. Eman

### 6.3. Galdu/Aurkitu

### 6.4. Bestelakoak

– Barne-dekoratzailea eskaintzen da proiektu erreformak eta obra barik egin beharreko lanak aurrera eramateko. Pre-zio ona. Tel. 616-144262.

– 41 urteko emakumea eskaintzen da etxeak, tabernak, soziedadek eta eski-lararak garbitzeko. Tel. 653-010861.

– Mutila eskaintzen da sukaldari-lagun-tzaile moduan lan egiteko. Tel. 667-965338.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa laneta-rako. Tel. 686-435056.

– Neska eskaintzen da umeak edo nugu-siak zaindu, kamarera moduan edo gar-biketa lanak egiteko. Tel. 617-056828.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintze-ko. Interna moduan. Tel. 638-711269.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintze-ko. Interna moduan. Esperientzia. Tel. 638-482478 edo 638-732436.

– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintze-ko, kamarero moduan... Tel. 671-358513.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintze-ko. Esperientzia. Tel. 626-954671.

– 31 urteko emakume eibartarra eskain-tzen da abuztuaren 7ra arte edozein la-netarako. Tel. 659-651010.

– Emakumea eskaintzen da 15.00etatik 18.00etara nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 626-670510 edo 616-397348.

– Mutila eskaintzen da nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako. Tel. 648-143804.

– Neska eskaintzen da egun erdiz umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Urteetako esperientzia. Tel. 616-727433. Amaia.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Esperientzia eta informeak. Tel. 626-335024 edo 943-254459.

– Neska eskaintzen da umeak edo nugu-siak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 627-540583.

– Neska eskaintzen da umeak edo nugu-siak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 686-265293.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa laneta-rako. Esperientzia. Tel. 646-235195 edo 943-531903. Aida.

## 4.2. Langile bila

– Taxiaren lizentzia transferitzen da Ei-barren, jubilazio batengatik. Tel. 608-875175.

– Familia euskaldun batek au-pair behar du Londresen irailetik aurrera. Tel. 00447768243191 edo mirenlondon@hotmail.com

– Sukaldari-laguntzailea behar da. Espe-rirentziarekin. Tel. 943-121262.

– Kamarera/o eta sukaldari laguntzailea behar dira Arraten. Tel. 677-638184.

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

– Ingeniari teknikoak Matematikak, Fisi-ka, Kimika eta Dibujoko klase partikula-rrak ematen ditu Eibarren. DBH eta Ba-txilergo mailak. Tel. 692-596157.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

– Egongelarako altzariak salgai. Ia be-riak. Prezio onean. Tel. 943-120308.

### 6.3. Galdu/Aurkitu

– Ekainaren 17an, Urkizuko parkean, emakumearen urrezko pultsera galdu zen. Aurkitu baduzu, deitu mesedez. Tel. 943-127360.

### 6.4. Bestelakoak

– Uztailaren amaieratik abuztuaren amaiera arte herrian gelditzen bazara eta Berria egunkaria jaso nahi baduzu (harpideduna naiz eta kanpora noa), dei-tu. Tel. 675-712886.

– Ume-jaioberriarentzako bigarren esku-ko kotxea erosiko nuke. Tel. 609-918803.

– Ume-jaioberriarentzako bigarren esku-ko kotxea erosiko nuke. Tel. 696-717968.

# ZEZEN BIDE AUTO ESKOLA



**Auto, autobus, kamioi eta motorrentzako gida-baimenak  
Teorikako irakaslea egun osoan**



## GIDA-BAIMENAK

**Ego Gain, 4 - behea**

(San Andres pasealekutik)

**Tel. 943 20 34 45**

**EIBAR**

## ZEZEN BIDE



## AUTO ESKOLA

# Iriondo

# Promozioak

Santa Ana, 4-6 ELGOIBAR [www.iriondodecoracion.com](http://www.iriondodecoracion.com) Tel. 943-741234

**NEOX EGURREZKO SOMIER FINKOA**



**5 urteko garantia**

**MUELLEDUN KOLTXOIA + VISCO**



**%100 LATEX KOLTXOIA**



**HR KOLTXOIA + VISCOLASTICA**



90x190	459 €
135x190	684 €
150x190	684 €

\*Hankak prezioan sartu gabe



**DOUBLE OFFSET  
MUELLEDUN KOLTXOIA**

**5 urteko garantia**

**BAT BURDINEZKO  
SOMIER FINKOA**



90x190	272 €
135x190	378 €
150x190	438 €

\*Hankak prezioan sartu gabe

# Arrate Bezperako

# LUJANBIO Irailak 7

-astelehena-

Kantabrian, 21.00etan

L  
I  
Z  
A  
S  
O



gai jartzailea  
ASIER  
IBAIBARRIAGA



EGA  
ÑA  
PEÑA

BAZKIDEENTZAT  
AURREALMENTA

24 Uztailaren  
ra arte

bazkide bakoitzak  
2 sarrera (25 euro)

# Bertsu Afaria

Uztailaren 27 tik aurrera

Sagar Bitzan, Kultun eta Kantabrian


SALGAI (26 euro)



Laguntzaileak



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Eusko  
Jaurlaritza

Antolatzaileak

ARRATEKO JAI BA-  
TZORDEA

